

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### Igande honetan egingo den maratokia trafikoa aldaketak eta zirkulazio etenak eragingo ditu hiri guztian

*Eragin nagusienak 8:30etik 14:00ak artekoak izango dira*

Azaroaren 24an, Donostiako Maratoia, Maratoi Erdia eta 10 km-tako lasterketa direla-eta, Udalak eta Antolatzaileek, hiriko trafikoan, aparkalekuetan eta garraiobideetan eragingo dituzten aldaketak kontuan hartuta, trafiko antolamendu berezi bat jarri dute martxan. Ezaugarri eta dimentsio handia duen ekitaldi honek hiria ia geldirik egotea behartuko du, goizeko **8:30etik 14:00ak inguru arte**. Lasterketa Amara, Loiola, Erdialdea, Gros eta Antigua auzoetatik igaroko da.

Boulevard Zumardia itxita egongo da, 8:30etik 13:00etara, Aldamar kaletik hasita Hernani kalearen hasiera arte.

8:45ean, Errondo pasealekutik, irteera emango zaio 10 km-tako probari. Maratoia eta maratoi erdia 9:00etan hasiko dira. 10 km-tako eta maratoi erdiko bideak Maratoiak izango duen ibilbidean txertatuak daude.

**Erdialdean, Grosen eta Amaran** norberaren ibilgailuentzako hainbat sarbide itxita egongo dira, nahiz eta eragin handienak **Antiguan** eta **Loiolan** igarriko diren. Halaber, ez da zirkulatzerik izango **Kontxa Pasealekutik**, **Easotik** eta **Errondo Pasealekutik**.

Ez da gomendatzen Donostiara **Antigua-Ondarretoa** aldetik sartzea.

Aipatutako auzo horietako herritarrek ibilgailua erabili behar izanez gero, Mugikortasun agenteen, Udaltzainen eta lasterketaren antolatzaileen aginduak jarraitu beharko dituzte.

Trafiko mozketei dagokionez, esan behar da 8:30etik aurrera, hiria ekialdetik mendebalderaino zeharkatzeko, GI-20a erabili beharko dela; GI-20tik Loiolarako irteera itxita egongo da. Hirira sartzeko nahiz irteteko Urumeako autobia une oro irekita egongo dela eta trafikoan aldaketak egingo direla zenbait auzotako sarrera-irteeretan.

Trafiko mozketak 8:30ean hasi eta, lasterketa amaitu arte, 14:00ak inguru arte, egingo dira, Errondo pasealekuan izan ezik, bertan 6:30ean hasiko baitira. Podavines biribilgunetik Aita Donostiara (Aita Donostia zentzurantz) doan zatian hain zuzen ere.

Lasterketak, bere osotasunean, hirian hainbat aldaketa sorraraziko ditu, trafikoan, egoiliarretan, autobus lineetan, taxieta, lurpeko aparkalekuetan eta, orokorrean, zirkulazioan.

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Herritarrentzako gomendioak

Udalak eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herritarrei, beren laguntzarengatik. Era berean, gomendatzen dute, alde batetik, hirian garraio publikoa erabiltzea eta, bestetik, kontuan hartzea ibilgailuak mantsoago ibiliko direla hiri barruan; hori dela eta, komeni da garaiz ateratzea.

Horrez gain, gomendagarria da hirian garraio publikoa erabiltzea. Horretarako, azaroaren 25ean, igandean, Dbus hiri autobusen erabiltzaileek doan bidaiatu ahal izango dute 7:20tik 13:00etara bitartean (Trintxerpe-Altza-Molinao arteko 38. lineako bidaiena izan ezik).

### Illunbeko aparkalekua

Amara auzoan aparkatzea errazte aldera, Illunbe lurpeko ordainpeko aparkalekua irekita egongo da asteburu honetan. Larunbatean, hilaren 23an, 14:00etatik 20:00etara eta igandean, azaroaren 24an, 7:00etatik 18:00etara. Prezioa 3€.

### Trafiko aldaketak eta mozketak Maratoian

Hirira sartzeko trafikoa 8:30ean itxi ondoren, ibilgailuak honako leku hauetatik sartu eta aterako dira:

- Ondarretatik edo Igeldotik atera nahi dutenak: Vitoria/Gasteiz kalea – Maule – Ondarreta pasealekua – Olarain pasealekua – Andrestegi – Berio – Europa plaza – Tolosa hiribidea, zerbitzuen lerroa – A-8 edo Infiernorantz.
- Berio – Arriola pasealekua – Tontorgoxotik atera nahi dutenek ibilbide hau egin behar dute: Berio – Europa plaza – Tolosa hiribidea, zerbitzuen lerroa – A-8 edo Infiernorantz.
- Ibaetatik atera nahi dutenek: Errotaburuko biribilgunera joan behar dute, eta, han, nahi duten norabidea hartu ahaliko dute Tolosa hiribidetik, Añorgarantz, ingurabidetik, Amara edo Antigua alderantz, eta Zarautz kaletik, Lorea eta Benta Berri auzoetarantz.
- Hirira Tolosa hiribidetik sartzen direnek Zarautz kaletik edo bide berritik joan beharko dute, helmuga zein den.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



- Antigua: auzotik irteteko, ibilbide hau egin beharko dute: Karmelo Etxegarai – Resurreccion Maria Azkue – Zarautz kalea – Amerika plaza edo Heriz pasealekua edo Aizkorri (bizitokia eta helmuga zein diren); eta sartzeko, berriz, Zarautz kalea edo Heriz pasealekua erabili beharko dute, helmuga zein den.
  - Ibilgailuak, larrialdietakoak izan ezik, ezingo dira Mirakontxatik Kontxa pasealekura sartu; horren ordez, La Fe pasealekutik Aieterantz joango dira.
  - Kontxa pasealekurako sarbidea itxita egongo da bi norabideetan; beraz, erdialderako bide GUZTIAK Zumalakarregi – Satrustegi biribilgunetik Mikeletes – Pio Barojara desbideratuko dira.
  - Mirakontxako, La Fe pasealekuko, Duque de Baenako eta Santserrekako bizilagunak eta bide horietara doazen taxiak izan ezik, ibilgailuak ezingo dira Santserrekatik Mirakontxara jaitsi.
  - Igeldo – Ondarretara joan nahi duten bizilagunek Errotaburu – Igaratik sartu beharko dute; handik, beren bizitokira iristeko jarraibideak emango zaizkie.
- \* Hiriaren hegoaldeko herrietatik datozen ibilgailuak GI 41etik sartuko dira.
- Easo – Zubieta – San Martin kaleek osatutako perimetroaren barruko bizilagunek Urbietara – Arrasate... kaleen arteko elkargunetik sartu beharko dute, ibilbide hau eginez: Pio XII.a – Bizkaia pasealekua – Gernikako Arbola pasealekua – V. Olano – Prim – Hondarribia – Arrasate (oinezkoen gunetik, hango piboteak kenduko dira).
  - Errondo – Karlos I.a – P.M. Collado – Podavines guneko bizilagunek ibilbide hau egingo dute sartzeko: Pio XII.a – Collado, kontrako norabidean (konoekin lerro bat jarriko da José M<sup>a</sup> Salaberria eta Pio XII.a lotzen dituen bide tartean) – José M<sup>a</sup> Salaberria.
  - Errondo – P.M. Collado – Sancho el Sabio – Azpeitia guneko bizilagunek ibilbide hau egingo dute sartzeko: Pio XII.a – Collado, kontrako norabidean (konoekin lerro bat jarriko da José M<sup>a</sup> Salaberria eta Pio XII.a lotzen dituen bide tartean) – José M<sup>a</sup> Salaberriarantz igaroz bide horren parean dagoen errepideko erdibitzailetik.
  - Parte Zaharreko eta Kaiko bizilagunak Argentinaren Errepublika – Salamanca pasealekutik sartuko dira (errepidea zeharkatuz), eta Parte Zaharraren barrutik igaroko dira Kaira eta Mari kalera iristeko. Irteteko, Aldamar – Okendo – Askatasunaren hiribidea erabiliko dute, Groserako norabidean.

# Prensa oharra

## Nota de prensa

- Askatasunaren hiribidea – Argentinaren Errepublika – Hernani – Boulevardak osatutako perimetroaren barruko bizilagunak Argentinaren Errepublika – Erregina Erregeordea – Okendo – Bengoetxea ibilbidetik sartuko dira. Irteteko, Hernani kalea erabiliko dute.
- Askatasunaren hiribidea – San Martin – Urbieta – Bergarak osatutako perimetroaren barruko bizilagunak Gernikako Arbola – V. Olano – Prim - Hondarribia ibilbidetik sartuko dira. Irteteko, Askatasunaren hiribidea – Urbieta ibilbidea erabiliko dute.
- San Martin – Urbieta – Gernikako Arbolak osatutako perimetroaren barruko bizilagunak Gernikako Arbola – V. Olano – Prim - Hondarribia ibilbidetik sartuko dira. Irteteko, Urbieta edo Prim erabiliko dituzte, Parke kalerantz.
- Sagues – San Blas eta Zemoriako bizilagunak Ategorrieta – Mikel Gardoki – Rodil – Alejandria – Zemoriatik sartuko dira. Irteteko, Zurriola hiribidea erabiliko dute Saguesekoek, Nafarroa hiribidea San Blasekoek eta Zurriola hiribidea Zemoriakoek.
- Manteo – Arbola pasealekuko bizilagunak Ategorrieta – Mikel Gardoki – Rodiletik sartuko dira. Irteteko, Rodil – Ategorrietako Galtzada Zaharra erabiliko dute.
- \* Morlans: sarbidea Katalina Eleizegitik egingo da eta irteera Errondo kaleko espaloia erabiliz Izostegi kaletik.
- \* Gros: ekialdetik, Ategorrieta... Hegoaldetik, Bizkaia pasealekua – Gernikako Arbola pasealekua – Foruen pasealekua... Mendebaldetik, GI 20, Intxaurren aterata, edo G40 + Gi41 Bizkaia pasealekua.
- \* Erriberak: ekialdetik, Frantzia pasealekua – F.G. Lorca – Urumea pasealekua. Mendebaldetik, GI 20 + G40 + Gi41... Irteera, Loiolako Erriberak pasealekutik.
- \* Loiola: ekialdetik, Frantzia pasealekua – F.G. Lorca – Urumea pasealekua – Loiolako Erriberak – Sarasate – Bartzelona hiribidea – Nemesio Etxaniz (kontrako norabidean) – biribilgunea (kontrako norabidean) – Urkiko biribilgunearen eta Aralar Mendiaren arteko bidea. Mendebaldetik, GI 20 + Gi 40 + Gi 41 Eustasio Amilibia – Felipe IV.a – Irun plaza – Gregorio Ordoñez – Bartzelona hiribidea – Nemesio Etxaniz (kontrako norabidean) – biribilgunea (kontrako norabidean) – Urkiko biribilgunearen eta Aralar Mendiaren arteko bidea. Irteera: Aralar Mendia – Aintzieta edo Aralar Mendiaren eta Loiolako Erriberak pasealekuaren arteko bidea, Urkiko biribilguneetik.

### TAO

Egoiliarrentzako TAO txartela duten hiritar guztiek, baimena izango dute beraien ibilgailuak Aparkaleku Mugatuko Guneetako edozein sektoreetan aparkatzeko

# Prensa oharra

## Nota de prensa



destinoko eremuko TAO Txartela dutenen baldintza berdinetan, azaroaren 21etik, ostegunetik, azaroaren 25era, biak barne.

Hala ere, egoiliar hauek ezin izango dute beren ibilgailua dohainik aparkatu ordainketa nahitaezkoa den guneetan (15 eremuko guneetan) araututako ordutegiaren barnean.

### Dbus

**Igandean, azaroaren 24an, 8:30etik 14:00ak** inguru arte, lasterketaren eraginez, aldatu egingo dira hainbat geltoki.

Dbus hiri autobusen erabiltzaileek **doan bidaiatu** ahal izango dute **7:20tik 13:00etara** bitartean, bidaion kostu osoa maratokiaren antolatzaileek ordainduko baitute (Trintxerpe-Altza-Molinao arteko 38. eta TB6 Uliá-Taxibusa lineak izan ezik).

- 5-Benta Berri, 9-Egia-Intxaurren, 18-Seminarioa, 25-Benta Berri-Añorga, 26-Amara-Martutene, 28-Amara-Ospitaleak eta 42-Aldapa-Egia lineak azken geldialdia Santa Katalina zubian egingo dute.

- 19-Aiete-Bera Bera (mikrobusarekin), 23-Errondo-Puio eta 32-Puio-Errondo lineak Amara kalera aldatuko dute azken geldialdia

- 8-Gros-Intxaurren, 13-Altza, 14-Bidebieta eta 29-Hego Intxaurren Hegoa lineak azken geldialdia Pinares-Miracruz-en egingo dute

- 16-Igeldo linea: ez da zerbitzurik egongo Gipuzkoa plaza eta Ondarreta arteko zonaldean, ezta Sanserrekan ere. **Lotura zerbitzua** eskainiko da Jose M<sup>a</sup> Satrustegiko (Eceiza) geltokitik eta hemendik Igeldo eta Antigua auzoak lotuko dira.

- 21-Mutualidades-Anoeta, 31-Intxaurren-Ospitaleak-Altza eta 46-Morlans lineak ez dute zerbitzurik emango.

Era berean aldaketak egingo dira linea hauetan: 17, 24, 27, 33, 35, 36, 37, 41, 45 eta TB6 Taxi-busean (Uliá)

Informazio gehiago: [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus)

### Taxiak

Kale hauetako geralekuak kenduko dira: Boulevard, Idiakez, Askatasunaren hiribidea, Colón, Manterola, Aita Larroca y Madril hiribidea.

Donostia, 2019ko azaroaren 21a

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

